

## Alternatiben urriak



Iñaki Barcena  
EKOLOGISTAK  
MARTXAN-EKO KIDEA

**Baionatik Bilbora:** inor gutxik espero zezakeen Baionan 2013ko urriaren 6an ikusitakoa bi urte geroago Bilbon, 2015eko urriaren 24an errepika zitekeenik. Nik neuk ARGIAN hauxe idatzi nuen: “Ziur nago, Alternatiba eguna hemendik aurrera erreferentzia politiko nabarmena izango da Frantziako Estatuaren ezkerrentzat, egin duten lana eta lortu diren emaitzak eredu-garriak izan baitira. Ez nago hain ziur lorpen hori gure Hegoaldean antzerakoa izango denik. Maleski, gure kultura politikoa ez da normala, kausa komun baten aurrean –aldaketa klimatikoa, kasu– hainbeste jende desberdin biltzea, sigla eta jatorrien gainera. Hori ez da denbora txikian lortzen, hori lan sendo eta luzearen emaitza da”. Urte bi nahiko izan dira Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak testigua hartuz gero Bilboko Alde Zaharrean milaka lagun biltzeko eztabaidan, tailerretan, txosna eta karpenterako paseoan edota dantzan. Nola “kutsatu” dizkigute Iparraldeko ekologistek euren lan egiteko metodoak eta tresnak? Hor dago arrakastaren gakoa.

**Donostian, Zokoan eta Donibane Garazin:** Pozoia dosi txikitetan etorri da. Aldez aurretik beste alternatiben herrixkak izan dira. Donostian eta Zokoan joan den ekainaren 6an bi pilula, eta gero Donibane Garazin urriaren 10ean beste bat. Gogoia bete da. Amesten genuena gauzatu da. Bi urte

aurretik idatzi genuen: “Baiona Ttipiko karraketan bezala, Alternatiba egunak Euskal Herriko beste herri eta hirietan errepikatzea, beste mundu posible horren aldeko urrats sendoa litzateke. Hala bedi!”. Orain badakigu sindikalistak eta tokiko enpresak, feminista gazteak eta jubilatuek, ekologista zein antimilitaristak ekonomialari alternatiboekin bateratu ditzakegula, baita des-hazkuntzaren aldekoak, euskara zaleak, bertsolariak eta artistak, kantariekin ere bildu, baldin eta formak, mezuak eta helburuak horizontalki eta gardenki helarazten baditugu, hierarkia eta lehenbaita gabe, dibertsitate aberasgarrian.

**Klima aldaketa dakar:** Aldaketa klimatikoaren auzia izan zen/da hasierako aitzakia. Arazo potoloa benetan, heltzeko zaila dena. Zer egin lezake hiru milioi biztanleko herri txiki batek erronka erraldoi horren aurrean? Nire aburuz Baionan martxan jarri zen eredu oso baliogarria da. Klima aldaketa ez da ekologisten arazoa soilik, zibilizazio oso baten galdera ikurra ere bada. Erokeria litzateke pentsatzea arazo teknologiko baten aurrean gaudela eta irtenbidea zientzialarien eskuetan dela. Gure eztabaidetan argi geratu den moduan, alternatiba ez da hari bakar batetik etorriko, hari, kolore eta jostun desberdinak behar ditugu krisi klimatiko-energetiko-kapitalista eta patriarkalari eusteko. ■

## Bada garaia



Oihana Etxebarrieta  
KAZETARIA  
@BetaurrekoMorea

**A**zaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. Hitzez, argazkiz, deklarazio instituzionalak, kartelez, txapez, puntu morez, izenez, zenbakiz... betetzen zaizkigu kaleak egunaren jiran. Eta gero? Isiltasuna. Hildako bat dagoenean edo eraso “larriren” bat gertatzen denean soilik apurtzen den isiltasuna.

Baina indarkeria sexista pairatzen dugun gorputzok nahikoa dela aldarrikatu dugu behin baino gehiagotan, eta horretarako kalera atera gara, *performanceak* egin ditugu, biluztu gara eta jantzi. Jantzi ditugu pelukak eta buru-berokiak. Hildako emakumeak irudikatu ditugu lurrean,

edo eltzak hartuta soinua ateratzen ibili gara. Eskoletara joan gara hezkidetza ikastaroak ematera, maitasun erromantikoa behatzen seinalatu dugu eta gure buruak aztertzen eta lantzen aritu gara, batzuetan negarrez eta besteetan barrez (bai... zenbat barre egin dugun barruan dugun Pantoja ateratzerakoan). Milaka modutan egin diogu aurre matxismoari, milaka modutan helitzen delako gure bizitzetara.

Baina gurea al da aldaketaren ardura? Erasotzen gaituztenoi dagokigu gizartea mugiaraztea? Ardurak konpartitu eta banatzen hasteko garaia da. Hitzetatik ekintzetara pasa gaituzten, bada garaia. ■